



acceso 360



Kilometroak Pre- ntsan 20251006



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Fecha	Titular/Medio	Pág.	Docs.
06/10/25	Las ikastolas reivindicán su singularidad «como tercera red del sistema educativo» / El Diario Vasco	3	2
06/10/25	PORTADA - KILOMETROAK, FESTA ETA ALDARRIKAPENA 2. ORR / El Diario Vasco	5	1
06/10/25	Euskararen aldeko aldarria eta festa, eskua emanda / El Diario Vasco	6	2
06/10/25	PORTADA / Gara	8	1
06/10/25	LAS FRASES DEL DÍA / El Diario Vasco	9	1
06/10/25	ELGOIBARKO KILOMETROAK OND ZION AURRE EURIAREN MEHATXU O EGIN JARI / Noticias de Gipuzkoa	10	3
06/10/25	PORTADA - «Salto-saltoka», Kilometroak jaiak «herria aktibatu» du / Gara	13	1
06/10/25	PORTADA / Gara	14	1
06/10/25	PORTADA / El Diario Vasco	15	1
06/10/25	«HIRUGARREN SAREAREN» ALDARRIKAPENA, FESTA GIROAN / Gara	16	2



A pesar del tiempo inestable que descargó lluvia a ratos, fueron miles las personas que se acercaron ayer a la zona festiva habilitada en el centro de Elgoibar. FOTOS GORKA ESTRADA

Las ikastolas reivindican su singularidad «como tercera red del sistema educativo»

La 49ª edición de Kilometroak defiende en Elgoibar un proyecto educativo «sólido, basado en la colaboración y la solidaridad»

OLATZ ELOSEGI

ELGOIBAR. La fiesta de las ikastolas de Gipuzkoa regresó ayer a Elgoibar por segunda vez para celebrar su 49ª edición, y aunque la lluvia volvió a ejercer de molesta invitada, miles de personas pudieron disfrutar del amplio programa de actividades organizadas por Elgoibar Ikastola bajo el lema 'Salto-saltoka'. Kilometroak volvió a ser una cita festiva, pero también reivindicativa, ya que las ikastolas quisieron poner en valor su singularidad y el papel que

desempeñan como «tercera red del sistema educativo». Así lo quiso dejar claro el presidente de Kilometroak Kultur Elkarte, Aitor Elizaran, en el acto de apertura de la fiesta. «Formamos una red educativa transformadora que educa desde hoy a los vascos del futuro. Nos sitúan en la red concertada, sí, pero tenemos claro que ese no es nuestro sitio. Las ikastolas conformamos la tercera red del sistema educativo. Y eso es lo que queremos reivindicar. Porque Kilometroak no sólo es una fiesta del euskera y de la cultura vasca, sino también una fiesta reivindicativa, una fiesta reivindicativa de las ikastolas».

En este sentido, subrayó que las ikastolas cuentan con proyectos educativos sólidos y que trabajan en base al marco educativo compartido y al modelo de per-

sona. Recordó que la red está formada por 115 ikastolas, 46.000 familias, 55.500 alumnos y 3.700 profesores y trabajadores: «Somos una comunidad popular, cooperativa y preparada, con una organización horizontal; nuestra seña de identidad es la colaboración y la solidaridad».

El acto de apertura, llevado a cabo en el patio de Elgoibar Ikastola y en el que no faltaron las referencias a Palestina y Ucrania, reunió a buena parte de la comuni-

dad educativa local junto a representantes institucionales, políticos y sindicales, entre otros. En su intervención, traducida como todas al lenguaje de signos por parte de Ianire Alonso, la consejera de Educación, Begoña Pedrosa, destacó el papel de los centros escolares en la euskaldunización de la sociedad. «La escuela es el espacio más fructífero que hará crecer al euskera», subrayó e hizo hincapié en la necesidad de trabajar conjuntamente para seguir me-

jorando la calidad del sistema educativo y avanzar en el proceso de revitalización del euskera. También se refirió a la necesidad de consolidar la comunidad educativa para responder a una sociedad cada vez más global y compleja e hizo un llamamiento a «abrazar la interculturalidad y la diversidad desde el euskera», como mejor aportación que podemos dejar a futuras generaciones. Para ello, subrayó la necesidad de «validar nuestra lengua y conseguir que sea el elemento de relación con los demás».

La diputada general, Eider Mendiza, hizo referencia a la cuerda elegida como imagen del Kilometroak de este año —una llamada a saltar juntos al euskera— para poner en valor la fuerza de la comunidad. «Somos lo que somos hoy en día gracias a haber conforma-

Educación destacó la necesidad de «trabajar de forma conjunta para seguir mejorando la calidad del sistema educativo»

La elgoibartarra Maritxu Loiola y Aspanogi, en su 30 aniversario, fueron homenajeados, junto a Cruz Roja y DYA



Una cuadrilla de jóvenes se afana en preparar una de las paellas que se repartió a mediodía.



La ikastola San Benito, de Lazkao, recibió el testigo para 2026.



Foto de familia de los homenajeados en la edición de este año.

do una comunidad fuerte, en la que siendo diferentes estamos unidos por una misma cuerda», destacó y recordó que la colaboración y contar con una lengua propia han sido fundamentales para ello.

Unos términos similares a los que empleó la alcaldesa Maialen Gurrutxaga: «Siempre hemos dicho desde el Ayuntamiento que queremos que nuestro pueblo sea un pueblo basado en la vida, el cuidado y la inclusión. Y para conseguirlo es imprescindible una comunidad sólida, que cada uno aporte desde su ámbito. Nuestra respuesta es clara: tender puentes, fortalecer la comunidad, y trabajar por un Elgoibar mejor».

La presidenta de Elgoibar Ikastola, Olatz Astigarraga, también apostó por impulsar el uso del euskera desde la cooperación. «Como ikastola, como cooperativa y como iniciativa popular, creemos en la colaboración y participación activa, y así lo hemos puesto en valor y promovido. Hemos querido aprovechar el año del Kilometroak para potenciar el uso del euskera. Para que lo hable más gente y más a menudo. Nos hemos ayudado mutuamente a elegir el



Los alumnos abrieron la fiesta en la ikastola con bailes y música.

euskera, y hemos creado las condiciones para dar ese salto al amparo unos de otros».

Testigo a Lazkao

La fiesta se trasladó después, en kalejira, hasta el restaurado edificio Aita Agirre donde Elgoibar Ikastola rindió homenaje a Maritxu Loiola, por haber dedicado «toda una vida al servicio del euskera» y por su contribución a la creación y desarrollo de la propia ikastola. Y también a Aspanogi, asociación de familias de menores con cáncer de Gipuzkoa, «que durante casi 30 años ha estado al lado de las familias, ofreciendo ayuda práctica, amor, apoyo y fuerza». La asociación estuvo representada por una familia elgoibartarra que no dudó en reivindicar más apoyo a la investigación y también recordó que necesitan una nueva sede. También hubo reconocimientos para Cruz Roja y DYA.

La próxima edición del Kilometroak, la número 50, ya tiene fecha y lugar. Será el 4 de octubre de 2026 en Lazkao y ayer, Irantzu Amundarain, presidenta de la ikastola San Benito, recibió el testigo para empezar a organizar una cita que se antoja especial.

LAS FRASES

Begoña Pedrosa
Consejera de Educación

«La escuela es el espacio más fructífero que hará crecer al euskera. Debemos abrazar la diversidad desde el euskera»

Eider Mendoza
Diputada general de Gipuzkoa

«Somos lo que somos gracias a haber conformado una comunidad fuerte; diferentes pero unidos por una misma cuerda»

Aitor Elizaran
Kilometroak kultur elkarte

«Formamos una red educativa transformadora que educa desde hoy a los vascos del futuro»

Pr: Diaria
Tirada: 32.897
Dif: 28.370

Cod: 178371709



Pagina: 1

Secc: PORTADA Valor: 550,54 € Area (cm2): 40,7 Ocupac: 4,64 % Doc: 1/1 Autor: Num. Lec: 137000

KILOMETROAK, FESTA ETA ALDARRIKAPENA

2. ORR



Euskararen aldeko aldarria eta festa, eskua emanda

Jendetza. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, Gipuzkoako Ikastolen aldeko festak milaka euskaltzale bildu zituen atzo giro ederra izan zuen Elgoibarko herrigunean

JABI LEON

Igandean euria egingo zuela iragarrita zegoen. Horregatik, atzo ohetik jaikitzerakoan elgoibartar gehienek egin zuten lehenengo gauza leihotik zerura begiratzeko izan zen. Zoritzarrez, iragarpenek ez zuten hutsik egin eta ekaitzak goizean goizetik egin ziren presente.

Elgoibarrek Gipuzkoako Ikastolen aldeko Kilometroak jaia hartu zuen atzo, bigarren bezala. Aurreneko aldia 1996an izan zen eta orduantxe ere, eguraldi txarrak baldintzatu zuen festa.

Hori bai, orain dela 29 urte euriak eta jaia ospatzeko prestatu zuten ibilbidearen hainbat lekutan pilatutako lokatzak guztiz baldintzatu zuten festa. Atzokoan, ordea, une batzuetan euri-zaparradak izan baziren ere, jardunaldiaz gozatzeko aukera egon zen. Batez ere arratsaldean, euri tarteak goizean baino askoz txikiagoak izan zirelako.

Festaren guneak herri barruan kokatuta, elgoibartarrek eta Kilometroak jaiaren 49. ekitaldiarekin disfrutatzea Elgoibarrera bertaratu ziren milaka euskaltzaleek babesguneak izan zituzten eskura, euria egin zuen momentuetan atertu bitartean egoteko.

Elgoibar Ikastolaren komunitateak azken urte osoan zehar festa prestatzeko lanean jardun ondoren, atzokoan faena borobiltzea tokatzeko zen; eta horrelakoetan hutsik egitea ez da aukera bat.

Horregatik, zerura begira bada ere, lehenengo ordutik ehunka lagun aritu ziren 2025eko Kilometroak behar bezala ateratzeko lanean. Mila bolondres baino gehiago egon ziren atzokoan lanean eta denen aurpegietan ilusioa nabaria zen.

Gauzak horrela, giro ederra bizi izan zen Aita Agirre plazan, Kale-

goen plazan eta Ikastolan bertan atzoko festarako egokitutako hiru gune ezbedinetan; baita Bernardo Ezenarro kaleko azpiguenean ere. Hori, nahiz eta eguraldia aurreko egunetan eskatutakoa ez izan.

Aurreikusita zegoen bezala, Euskal Herri osoko euskaltzaleen plaza nagusia bilakatu zen Elgoibar eta bertaratu zirenek zerekin gozatu izan zuten. Elgoibar Ikastolako ordezkariek jaiaren egitaraua eta bestelako xehetasunak eza-gutzera emateko orain dela egun batzuk egin zuten agerraldian 2025eko Kilometroak jaia «adin guztiei begirako egitarau bete-betarekin» zetorrela nabarmendu zuten. Eta halaxe izan zen.

Familian eta lagun artean

Gipuzkoako Ikastolen aldeko festan urtero gertatzen den bezala, era guztietako familiak eta lagun-taldeak bertaratu ziren atzo Elgoibarrera Kilometroak jaiarekin disfrutatzeke.

Aita Agirre plazako karparen ondoan Mikel, Xabier, Oihan, Leire eta Ane zeuden, tragotxo bat hartzen eta lasai asko solasean;

Ehun Kilo eta Trikidantz taldeek jendetza bildu zuten eta Golazen!-eko gazteek hankaz gora jarri zuten Ikastolaren eremua

Jai giroa goizean goizetik zegoen baina festa usaina, bereziki, arratsaldean nabaritu zen, euri tarteak txikiagoak izan zirenean

Ikastolen arteko erronkan aritu ziren bi neska gazte, pozik Kalegoen plazan, Trikidantz taldearen emanaldian. **J. LEON**

beren seme-alabak ondoko jolas-parkean aritzen ziren bitartean: «Zarauzko Ikastolako gurasoak gara eta saiatzen gara Kilometroak jaiarekin hutsik ez egiten. Guk ondo pasatzen dugu eta gure haurrak... zer esanik ez!».

San Bartolome parrokiako arkupeetan ipinitako egur-jolasetan murgilduta Ekhi, zortzi urteko ume eibartarra zegoen, Arkaitz bere aita ondoan zuela: «lehen aldia da semearekin etortzen garela Kilometroetara eta ailegau bezain pronto aitxixa eta amama-rekin elkartu gara. Beraz, hemen gaude eguna jai giroan eta familian pasatzeko prest. Umea entretenituta dago, primeran!».

Maddi, Ainitze, Libe, Nahia, Izaro eta Laia gazteen lagun taldeak plan ezberdina zuten. 14-15 urteko tolosar hauek «festaren erronkan parte hartzen ari diren gure ikastolako ordezkariek ikusi eta animatzera» etorri ziren; eta nola ez, «ondo pasatzera». Neska jator hauek gurasoei bizi izan dute Kilometroak jaia aurretik, «txikitant»; baina atzoko esperientzia berria zen beraientzat eta ez dute ahaztuko: «kuadrillan pasatzen dugun lehen Kilometroak da hau eta eguraldia oso ona ez bada ere, oso ondo ari gara pasatzen», zioten bazkaltzera joan aurretik.

Elgoibarko kale eta plazetan jai giroa goizean goizetik nabaritu zen atzo, baina festa usaina, bereziki, arratsaldean sumatu zen.

Haurrentzako jolasetan, tailleretan edota puzgarrietan jende asko ibili zen igandean zehar. Hala ere, Kilometroak bezalako jaietan normalean gertatzen dena errepikatu zen Elgoibarren: ekitaldi jendetsuenak kontzertuak izan ziren.

Arrakasta izan zuten emanaldi batzuk aipatzearren, Ehun Kilo talde elgoibartarrak jendetza bildu zuen Aita Agirre plazaren ondoko eszenatokiaren bueltan; Trikidantz taldeak Kalegoen plaza bete zuen; eta Golazen!-eko gazteek... hankaz gora jarri zuten Elgoibar Ikastolaren sarrera nagusiaren aurrean izaten den aparkalekuan egokitutako eszenatokia.

Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, milaka pertsona izan ziren atzo Elgoibarren Kilometroak festarekin disfrutatzen.

2026an Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaiak 'Urrezko Ezteiak' egingo ditu eta ospakizuna Lazkaoan izango da. Festa jarrai dezala!




Trikitilariak, erakundeetako ordezkariek aurretik. **G.E.**



Niala magoa truko bat egiten. GORKA ESTRADA



Antolakuntza taldeko neska talde bat, irrifarretsu. G.E.



«La paz no puede crear más injusticia», alertan desde la ONU

Las negociaciones sobre el plan de Trump se inician en Egipto con este subrayado de 28 expertos y relatores contra una solución «a cualquier precio». Israel sigue bombardeando y disparando

Egipto acoge desde hoy unas conversaciones sobre Gaza que despiertan expectativas de parar el actual genocidio pero también temores de que

puedan incrementar y perpetuar la injusticia. Así lo han subrayado 28 expertos y relatores de la ONU, que inciden en los perjuicios futuros de

«una paz a cualquier precio» forzada por el actual drama humanitario. Como dato previo, Israel afirmó el sábado que se limitaría a acciones

«defensivas» pero ha mantenido los bombardeos a menor escala y también los disparos a palestinos que solo intentaban acercarse a sus viviendas. >6-7

Maite GARAIGORDOBIL LANDAZABAL Doctora en Psicología >4-5

«La salud mental de la juventud empeora a nivel global»



«Salto-saltoka», Kilometroak jaiak «herria aktibatu» du

Testua: Amaia EREÑAGA | Argazkia: Gorka RUBIO | FOKU

«Salto-saltoka» lelopean Elgoibarren ospatutako Kilometroak jaietan, urte osoan egindako auzolana txalotu zuen atzo Olatz Astigarraga ikastolako lehendakariak: «Herria aktibatzea lortu dugu». Aitor Elizaranek, Kilometroak Kultur Elkartearen lehendakariak, ondorengo aldarrikapena egin zuen erakundeetan, alderdien eta euskal kultur gintzaren ordezkarien aurrean: «Biharko euskal herritarrek gaurtik hezten dituen hezkuntza sare eraldatzaileak osatzen dugu. Itunpeko ikastetxeen sarean kokatzen gaituzte, baina argi dugu hori ez dela gure kokalekua. Hezkuntza sistemaren hirugarren sarea gara ikastolak». >12-13

Fracasa el sabotaje policial a sus víctimas

Tras presentarse más de 500 solicitudes fraudulentas para intentar ser reconocidas como víctimas de violencia estatal, la campaña policial para sabotear esta ley se ha estrellado también contra los tribunales. Todos los recursos han sido desestimados. > 2-3

La Real agrava sus dudas (0-1) y el Alavés se refuerza (3-1)

El pleno vasco iniciado con victorias de Osasuna, Athletic y Alavés no pudo ser culminado por la Real. De nuevo tropezó en el repliegue y llega al parón con solo cinco puntos. Justo lo contrario en Gasteiz: partido muy completo ante el imbatido Elche. > 20-21



LAS FRASES DEL DÍA

Olatz Astigarraga **Elgoibarreko ikastolaren zuzendaria**

Kilometroak antolatu dute



«Euskararen aldeko indarra elikatu eta zabaltzea izan da gure nahia, ez bakarrik egun bakarrean baizik eta urte osoan zehar»

Aitor Esteban **Presidente del PNV**

El paro del día 15 por Palestina



«Algunos pensarán que con eso se podrá detener lo de Gaza. Pues no tendrá ningún efecto y perjudicará nuestra economía»

Eider García Sastra

El trabajo de estilismo en las pantallas



«La conversación con los artistas y el director creativo es importante para no perder la fuerza de la idea inicial»



Elgoibarko Ikastolak eman zion Lazkaoko Ikastolari lekukoa, 50. urteko Kilometroak antolatzeko.

ELGOIBARKO KILOMETROAK OND ZION AURRE EURIAREN MEHATXU

Kilometroen lekukoak Lazkaorako bidea hartu zuen, hurrengo urtean bertan ospatuko baita ● Maritxu Loiola, Aspanogi, DYA eta Gurutze Gorria omendu zituzten

✉ **Aitor Zabala**
📧 **Arnaitz Rubio**

ELGOIBAR – Kilometroak 2025 jaialdiak alaitasunez bete zituen Elgoibarko kaleak, milaka lagun bertaratu baitziren. *Salto-saltoka* lelopean, festa giro aparta egon zen, eta eguna euritsu izan arren, eguraldiak ez zuen inondik ere jendearen gogoia zapuztu.

Goizean goizetik bete ziren jendez kaleak, eta Elgoibar Ikastolak antolatutako ekintza ugariak giro beroa eta alaia piztu zuten herrian. Txar-rangaren doinupean esnatu zen eguna, eta lehen orduan abiatu zen lehiaketako protagonista izan ziren Elgoibarko Ikastolako ikasleek eta Erronkan parte hartzera etorri ziren beste 23 ikastoletakoek oso giro polita ipini zuten herrian gora eta behe-

ra. Eguraldiak jarritako erronka printzipala gaindituta, bertaratu ziren partaideek gogotsu eta indarberrituta disfrutatuta zuten egitarau oparoarekin, jai giroa herri osoan nagusitu zelarik.

Kilometroen irekiera ekitaldi ofiziala ikastolan bertan burutu zuten. Erakundeetako hainbat ordezkariak parte hartu zuten, eta urte osoan zehar egindako lana

goraipatu zuten, beti ere aurtengo ekimenaren ardatz nagusiak aintzat hartuta: elkarlana eta euskararen erabilera jauzia egitea.

KOMUNITATEAREN INDARRA Elgoibar Ikastolako lehendakari Olatz Astigarragak zabaldu zuen ekitaldia eta Kilometroak ez zela egun bakarreko jaiak azpimarratu zuten, urte osoan zehar elkarrekin egindako prozesua baizik. Bere hitzetan, "gure helburua euskararen eta herrigintzaren aldeko indarra elikatzea da eta, horretarako, elkarlana eta euskararen erabilera izan dira gure oinarriak. Ez dugu soilik euskararen alde egotea nahi, baizik eta jende gehiagok eta gehiagotan euskaraz egitea".

Ekitaldian Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak ere parte hartu zuen. Herri bizia, zaintzailea eta inklusiboa izatekotan, komunitate sendoa behar dela esan zuen, eta helburu horretarako Kilometroak bezalako proiektuek zer nolako garrantzia duten nabarmendu zuen. Amaieran, Gazako egoera ere gogora ekarri zuen herritarren elkartasuna aldarrikatuz.

Hezkuntza sailburu Begoña Pedrosak euskararen biziberri-tzean eskolak duen papera azpimarratu zuen, eta erakunde publikoek hezkuntza sistema indartzen jarraitu behar dutela esan zuen. Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak, berriz, sokaren irudia

KILOMETROAK 2025 →



Milaka lagun elkartu ziren Elgoibarko kaleetan, euskararen erabilera eta ikastolen komunitatearen lana aldarrikatzeko

Kontzertuak, jolasak, magia, tailerrak eta mota guztietako salmenta-postuek kolorea eman zioten jardunaldiari

espazio bat baizik. "Sare publikoa eta itunpeko sarea ditugu, alde bate-tik. Baina ikastolak hezkuntza siste-maren hirugarren sarea gara, eta horixe da gaur aldarrikatu nahi duguna".

Ikastolen mugimendua 115 ikasto-la, 46.000 familia, 55.500 ikasle eta 3.700 irakasle eta langilez osatuta dagoela azpimarratu zuen. "Komunitate herrikoia, kooperatiboa eta prestaturua gara: ikasleak, familiak, lankideak eta ikastola-zaleak... Euskal Herri osoan gaude, sare-tuta gaude, eta antolaketa horizontala dugu; elkarlana eta elkartasuna dira gure ezaugarri nagusiak".

Ekitaldi ofizialaren ostean, Elgoi-bar Ikastolak omenaldi hunkigarria eskaini zien Maritxu Loiolar eta Aspanogi elkarteari Aita Agirre erai-kinean. Maritxu Loiola, "Aubixako Maritxu", Ikastolaren sorreran eta euskararen alde egindako lanagatik omendu zuten. Aspanogik, berriz, haur minbizidunen alde egindako ibilbide oparoagatik jaso zuen aitoren-pena. DYK eta Gurutze Gorriak ere jaso zuten Elgoibarko Ikastolaren aintzatespena, urteetan zehar Kilo-metroei emandako laguntzagatik.

Azkenik, Elgoibar Ikastolako lehendakaria den Olatz Astigarraga-ren eskutik jaso zuen Lazkao Ikastolako lehendakariak, Irantzu Amundarainek, Kilometroaren lekukoa. 2026ko urriaren 4an Lazkaon ospatuko dute Gipuzkoako ikastolen jai handia. 50. Kilometroak izango da. Irantzu Amundarainek gogora ekarri zuen 1977an lehen Kilometroaren festa Lazkao eta Beas-sainen artean egin zela, eta 2026an Lazkaon ospatuko dutela.

JAI GIROA NAGUSI Omenaldiez aparte, jai giro ederra nagusitu zen Elgoibarko kaleetan. Hainbat gune-tan musika, tailerrak, dantzak, antzerkiak eta jolasak eskaini zituzten haur, gazte zein helduentzat. Eszenatokietan, Ene Kantak, Golazen, Asgarth, Malko, Ehun Kilo, Kittu! eta beste hainbat taldek giroa bero-bero mantendu zuten, euriaren mehatxuen gainetik. Ikastolako frontoia berriz, jangela erraldoi bilakatu zen, 450 lagunentzako toki eskainiz, eta txoznak ere ugari ziren herriko hainbat gunetan barreiatuta.

Egunean zehar lanean jardun zuten 1.100 boluntariok lan bikaina egin zuten, eta haien ahaleginari esker antolaketa zehatza eta eredu-garria izan zen, denon artean sortu-tako elkartasun eta konpromisoa lagun. ●



Kalejira batekin, ikastolatik erdigunera, eman zitzaion hasiera ofiziala egitarauari.



Helduek eta gaztetxoek elkarrekin gozatu zuten.



Giro ezin hobea bazkari herrikoian.



Maritxu Loiola, Aspanogi, Gurutze Gorria eta DYA omenduak izan ziren.

DO EGIN JARI

baliatu zuen komunitatearen balioa nabarmentzeko. "Guztiok desberdinak izan arren, komunitate bat eta bakarra gara, eta horri eutsi behar diogu. Gure herrian komu-nitate sendoa izan dugulako, gaur garena gara".

Komunitate horri eusten jarraitu behar zaiola gaineratu zuen, "elkar-lana, herri izaera eta gure hizkun-tza propioa" oinarri hartuta. Ama-itzeko, munduan gaizki pasatzen ari diren haur eta gaztetxoak ere gogo-ra ekarri zituen, Gaza eta Ukrainakoak bereziki aipatuz.

HIRUGARREN SAREA Ondoren, gogo-ra ekarri zuen Kilometroak ez dela festa soil bat, aldarrikapenerako

KILOMETROAK 2025



SALTO-SALTOKA ELGOIBARREN

- 1.** Golazen taldeko Gontzal (Kimetz Etxabe) eta Izar (Irati Marin) aktoreak, emanaldi batean
- 2.** Erronka lehiaketaren irabazleak
- 3.** Boluntarioak, atsedeen batean
- 4, 5 y 6.** Gazteek, haurrek eta familiek askotariko ekitaldiz gozatu zuten atzo Elgoibarren.
Argazkiak: Arnaitz Rubio

Pr: Diaria
Tirada: 250
Dif: 250

«Salto-saltoka», Kilometroak jaiak «herria aktibatu» du

Testua: Amaia EREÑAGA | **Argazkia:** Gorka RUBIO | FOKU

«Salto-saltoka» lelopean Elgoibarren ospatutako Kilometroak jaiak, urte osoan egindako auzolana txalotu zuen atzo Olatz Astigarraga ikastolako lehendakariak: «Herria aktibatzea lortu dugu». Aitor Elizaranek, Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariak, ondorengo aldarrikapena egin zuen erakundeen, alderdien eta euskal kulturgintzaren ordezkarien aurrean: «Biharko euskal herritarrek gaurtik hezten dituen hezkuntza sare eraldatzailea osatzen dugu. Itunpeko ikastetxeen sarean kokatzen gaituzte, baina argi dugu hori ez dela gure kokalekua. Hezkuntza sistemaren hirugarren sarea gara ikastolak». >12-13



info+ www.naizeus

109 free
THEMALL

GARA

2025 | 10 | 6

ASTELEHENA
XXVII. urtea | 9.664. zk.
1,70 euro

«La paz no puede crear más injusticia», alertan desde la ONU

Las negociaciones sobre el plan de Trump se inician en Egipto con este subrayado de 28 expertos y relatores contra una solución «a cualquier precio». Israel sigue bombardeando y disparando

Egipto acoge desde hoy unas conversaciones sobre Gaza que despiertan expectativas de parar el actual genocidio pero también temores de que

puedan incrementar y perpetuar la injusticia. Así lo han subrayado 28 expertos y relatores de la ONU, que inciden en los perjuicios futuros de

«una paz a cualquier precio» forzada por el actual drama humanitario. Como dato previo, Israel afirmó el sábado que se limitaría a acciones

«defensivas» pero ha mantenido los bombardeos a menor escala y también los disparos a palestinos que solo intentaban acercarse a sus viviendas. >6-7

Maite GARAIGORDOBIL LANDAZABAL Doctora en Psicología >4-5

«La salud mental de la juventud empeora a nivel global»



«Salto-saltoka», Kilometroak jaiak «herria aktibatu» du

Testua: Amaia EREÑAGA | Argazkia: Gorka RUBIO | FOKU

«Salto-saltoka» lelopean Elgoibarren ospatutako Kilometroak jaiak, urte osoan egindako auzolana txalotu zuen atzo Olatz Astigarra ikastolako lehendakariak: «Herria aktibatzea lortu dugu». Aitor Elizaranek, Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariak, ondorengo aldarrikapena egin zuen erakundeak, alderdien eta euskal kultur gintzaren ordezkarien aurrean: «Biharko euskal herritarrek gaurtik hezten dituen hezkuntza sare eraldatzaila osatzen dugu. Itunpeko ikastetxeen sarean kokatzen gaituzte, baina argi dugu hori ez dela gure kokalekua. Hezkuntza sistemaren hirugarren sarea gara ikastolak». >12-13

Fracasa el sabotaje policial a sus víctimas

Tras presentarse más de 500 solicitudes fraudulentas para intentar ser reconocidas como víctimas de violencia estatal, la campaña policial para sabotear esta ley se ha estrellado también contra los tribunales. Todos los recursos han sido desestimados. > 2-3

La Real agrava sus dudas (0-1) y el Alavés se refuerza (3-1)

El pleno vasco iniciado con victorias de Osasuna, Athletic y Alavés no pudo ser culminado por la Real. De nuevo tropezó en el repliegue y llega al parón con solo cinco puntos. Justo lo contrario en Gasteiz: partido muy completo ante el imbatido Elche. > 20-21

Pr: Diaria
Tirada: 32.897
Dif: 28.370SAN SEBASTIÁN
Lunes 06.10.25
Nº 30.060
2 euros

EL DIARIO VASCO

DECANO DE LA PRENSA GUIPUZCOANA www.diariovasco.comKILOMETROAK, FESTA
ETA ALDARRIKAPENA 2. ORRGASTRONOMIKA
ENCIENDE HOY
SUS COCINAS P10

REAL O RAYO 1

LA REAL SE DESPLOMA

Los txuri-urdin caen en Anoeta
en un partido plumizo y llegan al
parón penúltimos en la tabla P34Oyarzabal se lamenta
sobre el césped. ARIZMENDI

Gipuzkoa limita el beneficio fiscal por reinvertir en vivienda «para combatir la especulación»

Solo permitirá acogerse a esta
ayuda a los contribuyentes que
justifiquen el cambio de domicilioLa inédita medida se aplicará a las
ventas de las casas compradas
a partir del 1 de enero de 2026Todos los contribuyentes
que vendan en un futuro sus
casas -aquellas compradas
a partir del 1 de enero de
2026- ya no podrán acoger-se al beneficio fiscal de esa
plusvalía en el IRPF y solo
podrán hacerlo quienes jus-
tifiquen el cambio de domi-
cilio. M. MADINABEITIA P26

El etarra 'Gadafi': «La muerte del niño Fabio me marcó»

Iglesias Chouzas, que
ha recibido el tercer
grado, declara «sentir
de veras el dolor de las
víctimas». La Fiscalía
lo ve insuficiente«La muerte del niño Fabio
me marcó profundamen-
te». Es una de las frases del
preso etarra 'Gadafi' -con-
denado por una veintena de
asesinatos- que están re-
cogidas en los escritos ana-lizados por la Junta de Tra-
tamiento Penitenciario de
Basauri para otorgarle el
tercer grado, un expedien-
te al que ha tenido acceso
este periódico. La Fiscalía
ha recurrido la decisión. P22

El plan de paz pone el foco en «la otra guerra» de los colonos en Cisjordania

DV EN
CISJORDANIA
MIKEL AYESTARAN
SinjalEl plan de paz para Gaza,
que hoy comienza a nego-
ciarse, pone el foco en el
conflicto en Cisjordania. En
España, 21 de los tripulan-
tes de la Flotilla aterrizaron
ayer en Barajas. P30

Gipuzkoa detecta una nueva forma de estafa a tres bandas en venta de criptomonedas

La Fiscalía investiga si la
presunta víctima es en rea-
lidad parte de la trama. P8Esquelas... 20 | Televisión... 66
Cartelera... 60 | Pasatiempos... 68
Agenda... 61 | El tiempo... 70



KILOMETROAK FESTAREN 49. EDIZIOA, EURIPEAN BAINA BERO, ELGOIBARREN

«HIRUGARREN SAREAREN» ALDARRIKAPENA, FESTA GIROAN

KRONIKA

Amaia EREÑAGA

Giro bustiari aurre eginez, Gipuzkoako ikastolen jaia ospatu zen atzo Elgoibarren. Urte osoan egindako auzolanaren amaiera bikaina –«herria aktibatzea lortu dugu», esan zuen Olatz Astigarragak, ikastolako lehendakariak– ikastolen aldarrikapenaren isla izan zen: «Hezkuntza sistemaren hirugarren sarea gara», gogorarazi zuen Aitor Elizaranek.

Zeruari begira esnatu ziren asko atzo Elgoibarren. Aste osoan zehar egin duen eguraldi ederraren ostean eta, urte osoan zehar euskararen sustapena bultzatzeko egindako lan eskergaren ondoren, aurreikuspenak, eguraldiari zegokionez, ez ziren goxoak. Halere, giro hezeak ez zuen festarako gogoa lausotu. Goizean goizetik eta egun osoan zehar, noizbehinka botatzen zuen euriari muzin eginez, jende kopuru polita bildu zelako Elgoibarko kaleetan prestatu zen zirkuituan.

Elgoibarko Kilometroak jaia erabat «hiritarra» izan zen, Debarreneko herri honetako erdigunean burutu baitzen. Hiru gune nagusi eta bi azpiguñetan banatuta, jarduna normaltasunez burutu zen.

Azken orduko aldaketa bakarra izan zen, Janus Lester taldeak Aita Agirre gunean eskaini beharreko kontzertua bertan behera utzi behar izan zutelako, abeslariaren osasun arazoengatik. Bezperan Urnietan eskaini beharreko kontzertua ere bertan behera utzi behar izan zuen taldeak, arrazoi berarengatik.

Elgoibar ikastolan eman zioten hasiera aurtengo 49. Kilometroak festari. Giroa, erabat etxekoia: bertako ikaslea izan zen Ainhoa Leinez kazetaria, aurkezle lanak egin zituen; bertako ama da Maialen Gurrutxaga ere, Elgoibarko alkatea. 1.000 bat ikasle dituen ikastola da Elgoibarkoa, 1962an frankismoan bete-betean sortutakoa. Ikastolako lehendakari Olatz Astigarraga



Elgoibarko klasiko bat: Mauxitxa txaranga. Eguerdian giro bero eta alai hau ikus zitekeen Debarreneko herrian. Herriko kaleetan atondu zen zirkuituan adin guztiak nahastu ziren.

Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

gak «Salto-saltoka» lelopean urte osoan zehar egin den ekimen honen zehaztasunak eman zituen jaiaren irekiera ekitaldian: euskarara salto egiteko baldintzak sortuz, eta elkarren sokari eraginez, elgoibartarrekin eragile lanetan ibili dira azken 12 hilabeteetan. Herri langile eta euskaldun honetan, beste askotan legez,

gure hizkuntzaren erabilera- ren jaitziera adierazgarria nabaritu denez, Kilometroak jaiak helmuga zuen urtea baliatu nahi izan dute euskararen erabilera handitzeko, «ez euskararen alde gehiago egiteko, baizik eta euskaraz gehiago eta gehiagok egiteko. Horretan, elkarri lagundu diogu euskara hautatzen, eta el-

Pr: Diaria
Tirada: 250
Dif: 250

karren babesean salto hori egiteko baldintzak sortu ditugu. Eta herria, Kilometroak ekimenaren bueltan, aktibatzea lortu dugu», gehitu zuen.

Komunitate baten aldarria

Erakundeen, alderdi politikoaren eta euskal kulturgintza-oren ordezkari askoren aurrean, Aitor Elizaranek, Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariak, beste gai bati heldu zion atzo: ikastolen aldarrikapenari. «Biharko euskal herritarrak gaurtik hezten dituen hezkuntza sare eraldatzailea osatzen dugu. Itunpeko ikastetxeen sarean kokatzen gaituzte, baina argi dugu hori ez dela gure kokalekua. Hezkuntza sistemaren hirugarren sarea gara ikastolak. Eta hori da, gaur, aldarrikatu nahi duguna. Izan ere, Kilometroak, euskararen eta euskal kulturaren jaia izateaz gainera, aldarrikapen jaia ere bada, ikastolen aldarrikapen jaia».

Mugimendua 115 ikastola, 46.000 familia, 55.500 ikasle eta 3.700 irakasle eta langilez osatuta dagoela azpimarratu nahi izan zuen: «Komunitate herrikoia, kooperatiboa eta prestatua gara: ikasleak, familiak, lankideak eta ikastolazaleak... Euskal Herri osoan gaude, saretuta gaude, eta antolaketa horizontala dugu;

«Itunpeko
ikastetxeen
sarean kokatzen
gaituzte, baina
argi dugu hori ez
dela gure
kokalekua»,
azpimarratu
zuen Aitor
Elizaranek,
Kilometroak
Kultur Elkarteko
lehendakariak

elkarlana eta elkartasuna dira gure ezaugarriak».

Jarraian, zirkuitua zabaldu zuten: ikastolatik atera eta herriko erdigunerantz jo zuten, Aita Agirre kulturgunerantz, alegia, herriko lehenengo ikastola kokatu zen gunera. Han Maritxu Loiola, «Aubixako Maritxu» bezala ezaguna dena –ikastolaren sorreran eta garapenean «funtsezkotzat» jo zuten, Aubixa aterpean eta udalekuetan egindako lanagatik– eta Aspanogi elkartearen omendu zituzten. 30 urteetan haur minbizidunen eta haien familiak babesten dituen elkarte honetako bi partaidek jaso zuten oroigarria: Oier Etxaniz, minbizidun haurrei ospitaleko egonaldia robotekin eta teknologiarekin alaitzen ziena, eta Ane Perez, «Ane Pirata» bezala ezagunagoa, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsekin batera «Eskerrik asko» ikuskizunaren protagonista bilakatu zena.

Eta talo eta sagardo eta kontzertu eta jolasen artean joan zen eguna. Datorren urtean jaiak mende erdia beteko du eta, Lazkaoko Ikastolako lehendakari Irantzu Amundarainek gogoratu zuen legez, Lazkaora itzuliko da, 1977an egin baitzen lehen Kilometroak festa Lazkao-Beasainen. Datorren urteko urriaren 4an izango da hitzordua.